

FONOLOGIAREN NORMALKUNTZAZ: ZENBAIT BERRI

TXILLARDEGI

(Hizkuntzalaria, EHUko irakaslea)

1.- Oso alor zabala Fonologiaren Normalkuntzarena.

Hain zuzen ere, eta askotan irakur daitekeenez, hizkuntzen Plan-gintzak *Ortografia eta Hiztegia* izaten baititu helburu; eta gutxitan, espreski bederen, *Ahoskera*; *Ortoepia*, bestela esanda «Ahoskera estandarra» edo esan daitekeena.

Alde batetik hori egia izanik ere, ez da egia osoa. Bai gramatikazko osagaien hautaketan, eta bai hiztegia osatuko duten hitzen eraketan edo egokikuntzan, etengabe gertatzen baitira arazo *fonologikoak*.

Ortografiaren zehazketan, bide beretik, ortografia egokiak fonematikoak direnez, ahoskera datza beti funtsean.

Eta, hitz batez, hizkuntzen normalkuntzarako bidean, *Fonologiaren alorrean* mogitu beharra agertzen da nabarmenki. Ondoko adibideetan, eta aipa genezakeen beste aniztan, ageri den bezala.

Hots, Fonologia eta Dialektologia hertsiki datxezkio elkarri; batez ere, «batua»ren formak hautatzerakoan.

Ortoepiaren hautaketa, beraz, *arazo sozio-linguistikoa* da bete-betean.

2-Ondoko etsenpluetan ageri denez, ahoskeren etorkizunean pisu gaitza du hizkeren *pisu* soziologikoak. Bestela esanda, ahoskeraren gizarte-indarrean eragin nabarmena du *hiztunen mailak*: nagusitzen eta suntsitzen diren fonologi ereduen geroan, *klase-konotazioa* agertzen da garbiki; irudikatzen diren moldeak, *agintean* dauden gizarte-multzoen moldeak besterik ez baitira izaten. Nagusitzen den fonologia, *nagusi* dauden gizarte-multzoen fonologia izaten da. Ez hitzez edo legez bakarrik proposatzen dena.

Ortoepia finkatzea garrantzitsua izanik ere, hortaz, Ortoepia hori *erabiliko* duen *giza-multzoak* du muntarik handiena. Hau guztiz garbiki agertu da, esate baterako, *Hebraieraren* kasoan, aurreraxeago ikusiko dugunez; eta erakaspén berbera eman digu *Noruegeraren* bilakaerak.

3-Bide beretik, eta Schmidt-en «Wellentheorie» delakoak aspaldidantik erakutsi zuenez, hizkuntzen jatorriak edo «genealogiak» garrantzia badu ere, hizkuntzen geroa *hirietan* mamitzen da. Haurraren hizkera *gurasoekin* bezala, auzoko *lagunekin* mamitzen den bezalaxe. Jatorri *bertikalari*, harreman *horizontalen* eragina eransten zaio.

Bestela esanda, harreman eta erabilpen horizontal horiek ez menperatzekotan, alferrak izan daitezke etorburu hutsaren araberrako lotkiak.

4-Era berean, *Ortoepia jatorraren* aldeko *arauak* eta predikuak oro, alfer gertatzen dira *hiztegi-intzaren mamikuntzan* kontutan hartzen ez badira. Berantegi da Euskal Herrian ideia hau hemen errepikatzea, hiztegi-intza dexente abiaturik baitago. Beharrezkotzat jotzen dut, hala ere, hitz arrotzen *kopurua* kontutan hartzea. Ipar-Ameriketako ingelesak, jakina, arazo hauetaz zertan kezkatu ez dauka: hiztegia nolanihi mamiturik ere, Ipar-Ameriketako ingelesaren fonologia nekez aldatuko da. Ortografiak ez du eragin fonologiko handirik.

Hiztegia *errotik osatu* behar denean, aldiz, eta sekula erabili ez diren kontsonante-elkarketak, eta gainerako fonema-bikoteak, erruz ugaltzen direnean, erokeria hutsa da *ondorio fonologikoetan* ez pentsatzea.

«Phonological reshape» esan ohi zaio ingelesez hitz berrien «birmoldaketa» edo «egokikuntza» horri.

Suomieraz, adibidez, suomiar joera fonologikoak ez lardaskatzekotan, errotikako debekuak onartu dira. Hitz-hasieran, adibidez, debekatura dago osoki *herskari* + *urkari* bikoteaz ezer *idaztea* ere (alegia: ez dute fidantziarik jarri edozein gauza idatzirik ere *gero* hiztunak «behar bezala» ahoskatuko duela, eta abarretan). Hiztegiaren beraren mailan ebaki dute; eta kitto. Suedieratikako «bly» hitzak, «l'ýjijy» eman du suomieraz, /bl/ren ordez, /l/ idatziz (guk «laru» idazten dugunean bezalaxe, eta ez «klaru»). Ongi dakigu: bizi garen lekuan bizi gara, eta abar. Baina gu baino aisa indartsuago diren herriek egiten dute egokikuntza fonologiko hori; eta guk arrazoin handiagoz behar genuke egin, ene ustez. Mitxelenak berak maite zuen adibidea gogoratu, suomieraz «rópakanta» bihurtu da «propaganda». Kitto. Honi «Fonotaktika» zaintzea esaten zaio: «officer»etik, «úpseeri». Eta abar.

Horrela ez jokatzekotan, mailegua arrisku bihurtzen da. Baina, jakina denez, ez dago hizkuntza eguneratzerik maileguetara jo gabe. Arreta fonologikoa ezinbesteko baradera da: «De nouveaux phonèmes s'introduisent dans le système par la voie de *l'emprunt en masse*» (Fodor, «Language Reform», III, 472).

Iturrietara-nahi edo behar hori hizkuntz pizkunde guztietan gertatu da. Eta jatorrizko fonologiari eutsi nahi izatea ere bai; beti bide egokietatik jo izan ez bada ere.

5-Norvegeraren kasuak interes handia du, honi dagokionez.

Noruegan bi «estandar» daude; bi «Batu», nahi baduzue. Bata, lehen «landsmal» deitutakoa, eta gaur egun «nynorsk» izenekoa; fjordoetako eta baserrietako hizkeren ikerkuntzaz Aasen-ek prestatua, *gutxiengoaren* hizkera da gaur (eskolen %16an erabilia). Bestea, «bokmal» izenekoa, edota «dano-noruegiera», *gehiengoaren* hizkera bihurtu da; eta klasekutsua du, Noruegako hiritarren mintzaira delako.

«Nynorsk» jator horrek, aspaldidanik lortua du ofizialtasuna (1885az geroztik); baina ez du inoiz eskola-erabilpena %34tik gora lortu (1944an).

Funtzionarioek idazten jakin behar dute; baina ez hitz egiten. Hitz batez, *Dinamarkako kutsua duen hizkera* nagusitu da. Eta ondorio fonologikoak ere baditu honek. Azentuaren aldetik, adibidez: «hitz arrotzek», beren jatorrizko azentu arrotzari eusten diote; «maileguak», aldiz, (noruegiartutako maileguak, alegia) azentu estandarraren arabera ahoskatzen direlarik.

Aasen-en irizpidea, beraz, «bigundu» egin da; eta kutsu arrotzaren kontrako aurre-prestaera hura, hastapenetan nahi-ta-ezkoa, leundu egin da.

6.-*Magyareran* ere (hungarieran, alegia) maileguen *birmoldaketa* hori egiten da; alde batetik, magyartar abertzaletasunak hori eskatzen bide duelako; eta, beste alde batetik, ingeleskadak hungarieraz ahoskatu ezinak direlako. Maileguak egokitu egiten dira, segmentuetan eta azentuan: eskola, «iskola» bihurtzen da; eta erdarazko balneario, «bálna».

Garbizaleenek suomierazko «cognate»etara jo nahi izan dute. Baina hauek urrunegi gelditurik, ingelesera jotzen da orain maizago; baina hitzak, fonologiaren alorrean, hungariartuz.

7.-*Txekieraz* ere (batez ere alemaniar kutsuaren aurka altxaturik), egokikuntza fonologikoaren *ondoren* onartzen dira maileguak; eta ez jatorrizko beren horretan.

Ortoepiaren alor honetan Dobrovský agertzen da gailen; Bohemiaz nagusiturik zegoen alemanieraren kontrako borroka zailean.

8.-*Mazedonieran* gertatutakoak azterketa luzea merezi luke. Mundu-gerlaren ondoren sortua eta mamitua, nortasun-arazo latza zeukan mazedonierak: bulgarietatik berezi behar zuen, baina era berean serbiarekin bat egin gabe.

Horretarako *Mendebaldeko* dialektoak harturik, Skopje inguruko hizkera hartu zen estandartzat. Besteak beste, *azentuaren* aldetik azpimarratu zen diferentzia: mazedonierak, serbo-kroazieratik urrunduz (berau *prototonoa* baita; alegia, azentu nagusia ezkerretatik hasi eta

lehenengo silaban, txekiera bezala), azentua *proparoxitonian* hautatu zuten (eskuinetatik hasi, eta hirugarrenean).

9.-Aipamen berezia du *Turkierak*. 1922an sortutako mogimendu abertzaleari jarraituz, hizkuntzaren arazoa agertu zen (Turkiera orduan alfabeto arabez idazten zen, eta persieraz kutsaturik zegoen). Bere buruaz adibide eta jarraipide emanez, Mustafa Kemal zenak «Atatürk» bataiatu zuen bere burua; *alfabetoa* aldatu zuen, latinoa hartuz; eta Turkieraren «*garbiketa*»-*lana* hasi zuen. Izenak Turkieraz jartzeko agindu hertsia eman zuen, toponimia guztia turkiartuz (are grekoen eta kurdoen kontrako genozidioak burutuz), eta bokalik gabeko sistema arabikoari gure alfabeto mendebaldetarra kontrajarri zion. Turkiera berri eta batutzat *hirietako hizkera* hartu zuen oinarri (Istanbul, Ankara, Izmir); dialektoak lekuan lekuko hizkera mailan utziz.

Ortografia osoki fonologikoa izanik; oso distantzia *txikia* dago hizkera ofizialeatik Turkiako *hirietan* entzuten denera. Eta irratian eta telebistan Turkiera batu hori besterik ez da erabiltzen.

10.-Hitz batzuk, bukatzeko, Soziolinguistikari erabat gailen agertzen den *Hebraieraren* normalkuntza fonologikoaz.

Fonologiari dagokionez, eta bilakaera historikoa hemen errepikatu gabe, Hebraierak *hiru ahoskera* zituen Israel jaio baino lehenago: 1/ «Sefardita» izenekoa; 2/ «Askhenazi» izenekoa; 3/ «Yemenita» izenekoa.

Azkeneko hau zabaleraz txikia izanik, hautaketa biren artean egin da.

Hizkuntzalaritza hutsaren aldetik arazoa begiraturik, eredutzat «*sefardita*» hautatu behar zen (eta, teoriarik bederen, ahoskera sefardita da estandarra). Baina soziolinguistikoki arazoa zailagoa da; *askhenaziek indar ekonomiko handiagoa* dutelako. Eta honek ondorio garrantzitsuak ekarri ditu Ortoepia «faktikoa»ren aldetik.

«Ekialdeko» tradizioak, askoz hobeki gorde du Hebraieraren fonologia, «Mendebaldekoak» baino. Hebraieraz «Sepharad» esaten zaio Espainiari; eta adar honetan sartzen dira Espainiatik Errege «Kato-

likoek» kanporatutako juduak, eta azkeneko mendeetan Ottomandar Inperioan egondakoak. Multzo nabar honek indar ekonomiko txikiagoa du «Askhenazi»tarrak baino (Hebraieraz, «Askhenaz» hitzak Alemania adierazten du, hain zuzen); Askhenazitar horiek, oro har, mendebaldetar juduak direlako.

Nahiz ofizialki Israelek Ortoepia Batutzat «*sepharad*» izenekoa onartua izan, jendeak ahoskera *askhenaziaren aldera jotzen du gaur nabarmenki*. Hori dela-ta, egoera hau da: hebraiera ofiziala, «Seph-arad»; Israelgo semeek, «tzabar» delakoek, erdibideko ahoskera darabilte: sozio-linguistek «semi-sefardi» bataiatu dutena.

Ahoskera ofizialean, hortaz, / \bar{r} / apikala ahoskatu behar da, gaztelaniaz edo euskaraz bezala; eta ez /R/ frantsesa. Ahoskera ofizialean, /h/ ahoskatu behar da; ez /x/ belare gorra (= ez /j/ española, alegia). Eta Telebista ofizialean fonema horiek horrela ezin ahoskatzekotan, ezinezkoa da postu horiek hartzea. Bi fonema horien ahoskera egokia, beraz, *nahi-ta-ezko baldintza* da postu horiek betetzeko. (Oraindik ere eskakizun hori tenk ote dagoen ezin esan).

Baina beste fonema «ekialdetar» batzuk ere bide daude arriskutan: /w/ fonema, adibidez, oso modu germanikoan ahoskatzen dute gazteek: /v/, suediarrek ingelesa hitz egitean egin ohi duten bezalaxe. /t/ eta /s/ enfatikoak (arabieraren ezaugarri) /t/ eta /s/ «normal» gisa ahoskatzen dituzte Askhenazitarrek. Kontsonante geminatuak ere, ez dituzte bestetatik berezten. /q/ faringala, era berean, /k/ normal gisa ahoskatzeko joera dago Israel-go gazteen artean.

Askhenazitarren iritziz, Hebraiera «sepharad» modura ahoskatzen da; baina hizkuntzalariek hau diote: gehienez «erdi-Seph-arad» txarnegu hori ari dela nagusitzen. Eta joera horren gakoa ez dago legetan; egitura sozialean eta *benetako boteredunen ahoskeraren eraginean baizik*.